

Ala ffede, bada! Euskal testu berri gehiago Nafarroako XVI. mendeko justizia-uzibideetan

Ekaitz Santazilia, Ekaitz Santazilia Salvador

► **To cite this version:**

Ekaitz Santazilia, Ekaitz Santazilia Salvador. Ala ffede, bada! Euskal testu berri gehiago Nafarroako XVI. mendeko justizia-uzibideetan. Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, Udako Euskal Unibersitatea, 2019, pp.29-51. 10.26876/uztaro.108.2019.2 . artxibo-02508634

HAL Id: artxibo-02508634

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-02508634>

Submitted on 15 Mar 2020

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Ala ffede, bada! Euskal testu berri gehiago Nafarroako XVI. mendeko justizia-auzibideetan

Ekaitz Santazilia

UPNA/NUP, UPV/EHU

Nafarroako Errege Artxibo Nagusian XVI. eta XIX. mende bitarteko milaka justizia-auzibideren dokumentazioa gordetzen da. Gaztelaniaz idatzita dago, eta eskribauek euskaldun elebakarren aitortzak gaztelaniara itzultzen zituzten idatziz paratzeko. Hala ere, beharrezkoa zenean, lekuko horien euskarazko hitz gutxi batzuk bere horretan ematen zituzten eskribauek erdal itzulpenaren barnean. Lan honetan XVI. mende hondarreko auzibide zenbaitetan ageri diren euskarazko pasarte laburrak aztertu ditut. Lehenik, horrelako testuak nola eta zergatik ekoitzi ziren azaldu dut. Ondotik, dialektologiarako eta hizkuntzalaritza historikorako datu-iturri gisa duketen fidagarritasunaz eta balioaz aritu naiz. Gero, San Vicente, Arlegi, Iruñe eta Uxueko testigantzen edizioa eta azterketa egin dut. Buruenik, pasarteetan ageri diren hizkuntza-ezaugarriak zerrendatu ditut, eta lexikoa eta adizkitegia atondu.

GAKO-HITZAK: Nafarroa · Euskara arkaikoa · Justizia-auzibideak · Hizkuntzalaritza historikoa.

Ala ffede, bada! More new Basque texts from 16th-century judicial processes in Navarre

The documentation of thousands of judicial processes between the 16th and the 19th centuries is kept in the Royal and General Archive of Navarre. It is written in Spanish, and scribes translated the testimonies of Basque monolingual speakers into Spanish to record them in writing. However, when necessary, within the Spanish translation, scribes sometimes provided witnesses' words in Basque. In this work I have studied several short passages in Basque included in judicial processes from the end of the 16th century. Firstly, I have explained how and why such texts were produced. Afterwards, I have focused on the reliability and value those texts may have as data-sources for dialectology and historical linguistics. Then, I have edited and analysed the attestations from San Vicente, Arlegui, Pamplona and Ujue. Lastly, I have listed the linguistic features which appear in the passages, and provided a lexicon and a list of verbs.

KEY WORDS: Navarre · Archaic Basque · Judicial processes · Historical linguistics.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.108.2019.2>

Jasotze data: 2018-04-21

Onartze data: 2018-07-06

1. Sarrera¹

Gauza jakina da —edo behar luke— euskararen edo zeinahi hizkuntzaren bilakabide historikoa ezagutzeko, zeinahi berreraiketa edo hipotesiren aurretik, iturri idatziei eman behar zaiela lehentasuna, eta horiek behar bezala aztertzea eta kokatzea biziki garrantzitsua dela (Mitxelena, 2011 [1963]; Mitxelena 2011 [1971]: 327; Crowley, 1986, 101; Herring *et al.*, 2000: 3-4). Haatik, hizkuntzalariek ez du beti tokian tokiko eta garaian garaiko aski lekukotasunik ikerketarako, bereziki denboran gibel egin ahala. Iturri berri oro, beraz, pieza baliagarri bat gehiago da euskararen historiaren puzzle geografiko eta kronologikoan.

Justizia-auzibideek eragindako erdarazko dokumentazioak zeharka euskarazko pasarteak ere tarteka zitzakeela aspaldi dakigu han eta hemen argitaratutako zenbait lan esker, baina besteak beste Mitxelenaren (TAV) eta Sarasolaren (ConTAV) lanetan horiek beste testu zenbaitekin batera bildu izanak ikertzailearendako ikusgarriago egin zituen hain segur. Zeregin horretan eta berrikiago, zedarr ditugu Trebiñoren (2001) testu administratiboen bilduma edo Madariagaren (2014) liburua. Nafarroari zuzenean dagokionez, ezin ahaztu dugu Maioraren (2011, 2018) ekarpena, justizia-auzibideetan oinarritua osorik, horri neronek (Santazilia, 2015) egindako emendakina, Urtzi Regueroren (2017) doktorego-tesi baliagarria, edo lekukotasun berriekin atera berri dudan lana (Santazilia, 2017).

Hartara, lan honetan Nafarroako Errege Artxibo Nagusian (NEAN) gordetzen diren XVI. mendeko —hots, euskararen garai arkaikoaren hondarreko (Lakarra, 1997: § 7; Gorrotxategi eta Lakarra, 2001: § 7; Mounole eta Lakarra, 2018)— zenbait justizia-auzibidetan txertatutako euskarazko pasarte orain arte ezezagunen edizioa eta azterketa dakargu. Beroriek erdal prosaren artean edireteko ez dago beste biderik dokumentu eskuizkribatuak banaka eta goitik behera miatzea baino. Hala egin dut auzibide bakoitzarekin, baina egiari zor, argi utzi nahi dut lehen miaketa-lana Peio J. Monteanok hartu zuela bere bizkarrean, eta berak kausitu euskal pasarterik gehienak. Zinez eskertzen diot egin duen lana, baita lan hori nire eskuetan jarri izana ere.

2. Testuen ekoizpen-prozesuaz

Esan bezala, euskarazko pasarteak erdaraz idatzitako justizia-auzibideetan daude txertaturik, eta galdeketei lekuko euskaldun elebarrrek emandako erantzunetan batik bat. Horiek nola ekoitzi eta jaso ziren ulertzea ezinbestekoa zaigu darabilten euskara behar bezala kokatzeko. Printza batzuk baizik ez ditut hemen emanen, luzeago aritu bainaiz horretaz beste lan batean (Santazilia, 2017).

1. Lan honek MINECOK diruz hornitutako *Monumenta Linguae Vasconum 5: Periodización y cronología* ikerketa-proiektuaren sostengua du (FFI2016-76032-P). Bestalde, UPV/EHUko Euskararen Historia eta Hizkuntzalaritza Historiko-Konparatua (GIC 10/83, IT 486-10) ikerketa-talde kontsolidatuaren barnean kokatzen da, Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuropearrak eta Euskara (HiTeDi) (UFI 11/14) Prestakuntza eta Ikerketa Unitatearen baitan. Orobat, bihoakio nire esker ona Monumenta Linguae Vasconum ikerketa-taldeari, Aziti Bihia elkarteari, bereziki Dorota Krajewskari eta Eneko Zuloagari, baita Iker Salaberri Izkori eta Patxi Salaberri Zaratiegiri ere, lan honen prestaketan eman laguntzagatik, eta aldizkariaren errebisatzaile anonimoei ere bai, egindako iruzkin baliagarriengatik.

Lehenik eta behin, kontuan har lekukoen aitortzak euskaraz jasotzen zituztela eskribauek lekukoa euskaldun elebakarra zenean, eta gero erdarara bihurtzen, idatziz emateko. Hori horrela, sinestekoa da euskal pasarteak dituzten aitortzak osorik egin zirela euskaraz, ez soilik euskaraz ageri diren pasarteak, eta hori hala zela eskribauek berauek azaltzen dute batzuetan. Kasu horietan, idatziz jasotako araubideak argi zioen eskribauek deus aldatu, kendu edo gehitu gabe, zorrotz eta fidelki itzuli behar zituztela lekukoen hitzak, baita, behar balitz, euskarazkoak ere eman, hemen aztergai ditugun testuetan gertatu bezala (Monteano, 2017: 55).

Lekukoak esandakoa jatorrizko hizkuntzan jasotzea ezinbestekoa zenean bakarrik biltzen ziren hitzok euskaraz, eta usu ondoren itzulpena ematen, eskribauak. Bihurtze-lan hori egiteko, bistan dena, euskaraz jakin behar zuen. Gainera, Gaztelan ez bezala, Nafarroako justizia-sisteman debeku zitzairen eskribauei itzultzaileak erabiltzea (Monteano, 2017: 51-52, 58-59).

Eskribauak berak bidaiatzen zuen zegokion herrira galdeketak egitera, eta ostatu hartzeko hautatutako tokira banan-banan etorrarazten lekukoak. Galdeketa egin, eta hitzez hitz, deus aldatu gabe, jaso behar zituzten lekukoen hitzak. Lekukoari irakurri eta horrek berretsi ondoren, edukiak sekretupean gordetzeko, dokumentua ongi itxi eta Iruñera eramaten zen epaitegira (Monteano, 2017: 48-50).

Eskribauek Iruñean jasotzen zuten formakuntza eta han bizitzeko agindua zuten, Nafarroako zeinahi tokitan izanik ere jatorria. Auzi batean galdeketak egin behar zirenean, zerrenda baten hurrenkeraren arabera hautatzen ziren eskribauak, eta zerrenda bakarra zegoen erresuma osorako. Ondorioz, euskara jakitea garrantzitsua zen eskribauentzat, XVI. gizaldi hartan aski zabala zen eremu euskaldunean lan egin nahi bazuten. Eremu erdaldunean sortutako eskribau zenbait euskaldundu zirela dirudi, eta segur aski Iruñean, formakuntza-sasoian ikasi zuketzen hizkuntza (Monteano, 2017: 57 eta hur.).

3. Testuen interes eta fidagarritasun historiko-dialektologikoaz

Euskarazko testutxoeren interesa bi alderditatik heldu da. Batetik, XVI. mendeko egoera soziolinguistikoaren berri dakarte. Euskararen muga historikoak finkatzeko balio dute eta hiztunei buruzko informazioa ere badute: badakigu nor ziren, nongotarrak, zein adinetakoak, noren senideak, eta zein zen zuten egoera sozioekonomikoa. Beste aldetik, euskararen barne-historiarako ere garrantzi handikoak dira. XVI. mendean jasoak izanik, frankotan, pasarte horiek dira herri bateko eta garai horretako hizkeraz dugun testigantza bakarra, edo zaharrena behinik behin². Gainera, asmo literariorik gabe ekoitziak dira, alfabetatu gabeko hiztunen ahotik atereak, emakumeak frankotan, eta eguneroko hizkeratik hurbil daude edukietan eta forman³. Hori horrela, bestelako testuetan kausitzen ahal ez

2. Horrelakoez landara, gutxi dira, berez, XVI. mendeko testuak Nafarroan (cf. Mounole eta Lakarra, 2018: § 2).

3. Ahozkotik zuzenean jasota egon arren, idatzira pasatzeak beti izan dezake modu batean edo bestean eraginik (cf. Linell 2005), nahiz eta teorian eskribauek bere horretan jaso entzundakoa.

diren formak eman ohi dituzte: biraoak, lexiko berezia, arkaismo eta berrikuntzak, zenbait formaren lehendabiziko testigantzak...⁴

Hori esanda, pasarteok aingura-testu onak direnetz eztabaidatzea komeni da; hots, kokapen linguistiko garbirik ez duten testuei testuingurua emateko tenorean konparaziorako tresna egokiak diren eta, beraz, tokiko eta garaiko hizkeraren ordezkari onak diren ala ez (McIntosh *et al.*, 1986; Ulibarri, 2013). Ikusi dugu eskribauek entzundakoa zorrotz jaso behar zutela, pizarrik ere aldatu gabe. Gainera, testuak denboran eta espazioan ezin hobeki kokatuak ditugu, datu horiek auzibideetan aski ongi zehazten baitira; hartara, garaiko eta tokiko mintzamolde arruntaren isla ona beharko lukete izan, lehen usteen bederen. Hala ere, egia esan, alderdi kronologikotik zalantzarik pizten ez duten testuak dira, baina geografikotik badute zer esan: Monteanok (2017: 163 eta hur.) iradoki duen gisan, Iruñean bizi eta hezitako eskribauek zekarten euskara prestigiotsu hiritarraren herexarik ere ez ote dagoen susmoa dut (cf. hiriko aldaeren izaeraz, Camino, 2009: §§ 6, 7.6 eta Santazilia eta Zuloaga, 2018); hots, euskara administratibo erlatiboki diatopiko batena (Camino, 2009: 311 eta hur.), edo are eskribauek sehaskatik zekarten mintzoarena. Hala ere, hori behar bezala erakusten ez den bitartean eta orduko jardunbide eta arautegiei so, abiabururik ukigarriena tokiko hizkera islatzen dutela pentsatzea da, eta hala jokatu dut lan honetan⁵.

Pasarteei egin dizkiedan iruzkin linguistikoen helburuak bi dira nagusiki: batetik, ezaugarrien lekukotasuna jasotzea XVI. mendeko euskarari egiten dioten ekarpenagatik eta horretan duten lekuagatik, baita, zenbaitetan, lehen aldikoz ageri direlako ere. Bestetik, egin ditudan irakurketak eta iruzkinak garaian eta tokian posible direla ziurtatzea da iruzkinen xedea. Bi zeregin horietarako bestelako testuekiko konparazioak ere baliatu ditut. Tokitik eta garaitik hurbilen dauden testuak erabili ditut konparagai, nahiz eta gutxitan dugun aski materialik, eta horretan generoari ere begiratu diot, lehentasuna emanik beste justizia-auzibideetako pasarteei.

Tokian tokiko datu garaikideak ere sartu ditut inoizka, baina dagokien lekua emanaz. Argi utzi behar da, ez badugu baieztapen akronikoetan labaindu nahi, oraingo datuek XVI. mendekoekin bat egiten dutenean, ez daitekeela automatikoki ziurta ezaugarriak bertan lau mendez iraun duela. Gisa berean, bi garaitako datuak bat ez etortzea ere ez da aski hizkerak leku berekoak ezin izan daitezkeela esateko, pentsatzekoa baita isoglosek ez dutela zertan estatiko egon gizaldiz gizaldi. Hortaz, datu garaikideek ez digute balio ziurtasun osoz testua leku berekoa den ala ez esan ahal izateko, baina zenbait bilakaera diakroniko ikusteko balio digute, baita testuen irakurketa zuzena egiten ari garela bermatzeko ere.

4. Zilegi bekit dagoeneko beste lan batzuetan ere aldarrikatutakoa beste behin hona ekartzea. Oso garrantzitsua da auzibideak patxadaz eta goitik behera miatzea, huts-hutsean euskarazko pasarteetan gelditu gabe. Hori eginda, hiztunei buruzko datu soziolinguistiko baliagarriak ateratzen dira, eskribauen letrakera hobeki ulertzen dugu, pasarteak dagokien testuinguruan behar bezala kokatzen eta ulertzen ditugu eta, gainera, ezustean pasarte berriak ere azaltzen dira tarteka.

5. Betiere kontuan izanik eskribauen helburua ez zela, ezta urrunetik ere, XXI. mendeko filologo eta hizkuntzalari aseezin eta inkonformistentzat dialektologiarako eta hizkuntzaren historiako materialak ekoiztea, eta hizkerez zuten ezagutza eta kontzientzia ere ez zatekeela gaur egun bere lana horretara bideratzen duen hizkuntzalariak duena (cf. Camino, 2009: 313-314).

4. Lanaren antolaketa eta transkripzio-arauak

Auzibideak hurrenkera kronologikoan antolatu ditut, zaharretik hasi eta berrienera. Izenburuetan auzibidea zein herritan gertatu zen eman dut, urtea ondoren eta, azkenik, parentesi artean, NEANen auzibideak duen katalogo-zenbakia ere bai.

Ondotik, auziaren nondik norakoak azaldu ditut, lekukoei eta galdeketen egileei buruzko informazioa eta datak ahal bezain xeheki emanez, eta euskarazko pasarteak ahalik eta testuinguru zehatzenaz hornituz. Euskal testuak paragrafo beregainetan eta zenbaturik eman ditut eta, ondoren, parentesi artean, auzibideko zein orrialdetan dauden esan. Horren ondotik, hiru izartoxoz banaturik, hizkuntza-azterketa heldu da.

Hala euskarazko nola gaztelaniazko pasarteetan, puntuazio-markak eta letra larriak gaur egungo moldera ekarri ditut, baita hitzen banaketa ere, hitzen bilkurak aldaketa fonologikorik ekarri ez duenean. Ohar paleografikoak eta zuzenketak oin-oharretan eskaini ditut, baita euskal pasarteen itzulpenak ere, auzibideak berak eskaini duenean.

Transkripzioak erdipaleografikoak dira eta testua ahal bezain gutxi ukitu dut, baina badira salbuespen batzuk aipagarri: ese luzeak arrunt bilakatu ditut, eta <u> eta <v>-ren arteko txandaketa ere gaur egungo moldera bihurtu, lehena bokalerako eta bigarrena kontsonanterako utziaz, ez baita beti garbi ebazterik bietarik zein baliatu duen eskribauak. Azkenik, azalpenetako (ez pasarteetako) izen bereziak bateratu, eta grafia gaurkotuan eskaini ditut.

5. Testuak

5.1. San Vicente, 1578 (NEAN 11330)

Urraulgoitin euskarak orain gutxi arte iraun zuela badakigun arren (Jimeno Jurío, 1991), baita inguruko ibarretan ere, Urraulbeitin lehenago itzali zela dirudi (Salaberri Zaratiegi, 2012: 150). Bonapartek dagoeneko 1863an erdal eremuan kokatu zuen; gainera, gutxi dira bertako egoera linguistikoaz ditugun datuak, eta are gutxiago bertako hizkeraren lekukotasunak. Jimeno Juriok (1993: 245-246) erakutsi zuenez, 1593. urtean Tabar, San Vicente, Alduate eta Nardozekeo zenbait lagun Irunberrira bildu ziren euskarazko predikua entzutera, eta 1627an San Vicenten denak bide ziren euskaldunak, orduko Irunberriko dokumentu batean jaso zenez. Orain azterkizun dugun testua euskaraz idatzitako testigantzen aldetik oso dokumentu emankorra da eta, une honetan, tokiko euskararen testigantza bakarra, nik dakidala.

1577ko maiatzaren 12an, igandez, Pedro Martinez de Arieltz eta Joanes Villanueva, Urraulbeitiko San Vicenteko biztanleak biak, eztabaidan hasi ziren bezperetako meza aurretik, bata besteari zerga bat ordain zezan eskatzean. Arieltzek errejidore kargua zuen urte hartan, eta hari zegokion Villanuevari zor zuena galdegitea, baina zordunak ez zuen, nonbait, eskaera begi onez ikusi.

Meza ondorean, elizatik atera eta kanposantu ondoan⁶, urak baretu zirelakoan, Arieltz Villanuevari beste behin inguratu zitzaion kontu berberarekin: berriz kalapita. Arieltzek kuartelen⁷ ordainetan zor zituen tarjak⁸ pagatzeko eskatu, eta Villanuevak Arieltzi berak karitatezko bi imina gari zor zituela ekarri zion gogora. Ahoa berotu eta irainak agertu, dena bat. Hainbat herritar bakea ezartzera inguratu ziren, bien tartean sartuta. Horien artean zeuden, besteak beste, herriko alkate Juan Murillo, Pedro Azparren, Simon Esparza bikarioa eta Martin Villanueva, Joanesen anaia. Fiskalaren akusazioan irakur daitekeenez, tirabiren erdian Arieltzek sastakaia atera eta, Joanes eraso nahian, tartean zen Martin anaiari sartu zion puñala ezkerreko mehakan, ukaldi bakarrean. Arieltzen alde ageri zirenek, aldiz, puñala Villanuevarrek ere atera zutela zioten, eta Martin, bakea ezartzera baino gehiago, giroa berotzera inguratu zela. Sastada Arieltzek eman izana ere ukatu zuten, eta kexu ziren, gertakariaren ondotik akusatuak elizan babes sakratua hartuta ere, Murillo alkateak elizaren atean guardak jarri zituelako lehenik, eta gero bertatik atera zutelako atxilo. Badaezpada, Joanes Villanueva ere giltzapetu zuten eta Iruñeko presondegira igorri biak. Irunberritik Amendux zirujauak bidalitako ordezkioak ahal izan zuen guztia egin bazuen ere, hiru egunen buruan hil egin zen Martin Villanueva.

Escribauak egindako frogantzei esker, eztabaidan bi akusatuak elkarri esandako hitz lodiak zein izan ziren jakin dezakegu. Lekukotasun askotan erdaraz jaso zituzten hitzok escribauak, baina beste batzuetan, aldiz, euskaraz kopiatu ziren, egiazki iskanbila guztia hizkuntza horretan gertatu zela erakutsiz.

Juan Villava eskribaua bereziki eskuzabala da euskarazko pasarteak emateko orduan, 1577ko ekainaren 28an egindako galdeketa. Migel Azparren dugu Pedro Martinez de Arieltz eta Joanes Villanueva bereiztera joan zen horietarik. Villava eskribauari kontatu zionez, Arieltzek Villanuevari zerga kitatzeko eskatzean, Villanuevak horrela deitu zion Arieltzi:

(1) borracho xarquia! (56r)

eta Arieltzek Villanuevari, aldiz,

(2) guiton çarra! (57r)

Gaston Gil Espartza herriko biztanleak galdeketa berean Hualde eskribauari esan zionez, erditik kentzeko esan zion Villanuevak Arieltzi, hitzokin:

(3) quen aquit ortic, vorracho dollor xarriori! (57r)

Gil Orozek, beste auzokide batek, eskribauari kontatu zionez, «que amagays, borrachuelo ruyn» (59r) esan zion Villanuevak Arieltzi, baita beste hau ere:

(4) borracho xarr guiton xarra! (59r)

Simon Espartza auzoak, 23 urteko Gastonen semeak, hau entzun bide zion Villanuevari:

6. Kanposantua elizari atxikia zegoen orduan, eta hartzen zuen eremua egun ere hor dago.

7. Zerga mota bat da, bakoitzak zituen lurren araberakoa (cf. Bartolomé, 1985, 1993).

8. Felipe II.aren garaiko txanpona da.

(5) dollor xarraorrec guiçonari atra bear badio puñalori! (60r)⁹

Eta Joanes Villanuevaren morroi Tabarko Juan Iribarrenen ustez, Villanuevak Arieltzi hitzok bideratu zizkion, Villavak idatziz jaso zuenez:

(6) dollor vorracho xarra! (61r)

Villavak 1577ko uztailaren 6an egindako galdeketa ere bada euskarazko pasarterik. Simon Espartzak, San Vicenteko bikarioak deklaratu zuenez, «Villanueba dixo al dicho Arielz que se fuese de alli con todos los diablos, deziendole que era un vellacuelo» (73v-74r) eta gatazka baretzera Martin Villanueva iritsi zenean, honek labana eskuan hartu zuen eta apaizak honako hitzak entzun zizkion, nahiz eta oso apal eta inork ez entzuteko moduan esan:

(7) ala ffede, bada! (74r)¹⁰

Bikario horri berari 1578ko urriaren 16an Juan Zudaire eskribauak egindako itaunketan, zehazkiago jaso ziren Villanuevak Arieltzi esandakoak, zergen ordainketak tarteko:

(8) çoaz deabruetara, guilote vorracho çarquiiori, erromessori! çertaco çagozquit niri coartel galdez? paga eçaçu¹¹ çuc çor duçuna Pedro Salari! (205v-206r)¹²

Ezin izan zuen Arieltzek hiru urteren galera-zigorra saihestu.

* * *

Fonologian, <x> grafema dugu irainetan ageri den *txar* indargarrian. Zalantza egin daiteke soinu frikari edo afrikatua islatzen duen, eta sabaikaria edo bizkarkaria den; izan ere, *çarra* eta *çarquiiori* ere baditugu (2)n eta (8)n, eta (8)ko esaldi horretan berean ageri diren gainerako <ç> grafemek bizkarkari frikaria islatzen dute. OEHK (sv. *txar* eta *zahar*) esanahi honekin forma bizkarkariak baizik ez ditu ematen, nahiz eta horien etimologian *zahar* dagoela esan. Gaur egun, ordea, *txar*, *tzar* zein *zar* agertzen da funtzio hanpagarri berarekin (Salaberri eta Zubiri, 2007: 17). Iruñeko 1563ko prozesu batean *xarra* eta *charra* biak ditugu batera, eta *charra* zein *çarra* franko ageri dira Iruñean XVI. eta XVII. mendeko irainetan ere (Maiora, 2011; Reguero, 2017: 725 eta hur.)¹³. Funtzio hanpagarria duela dirudi, baina XVI. mendean zentzu etimologikoa atxikitzen zuen oraindik; izan ere, Iruñeko auzibide

9. Hots, «el ruyñillo si ha de rancal (sic) el punal (sic) al hombre» (60r).

10. «Que en castellano quiere dezir: pues a fee» (74r). Pasarte hau beste bitan ageri da, baina batean *feede* dator (207r) eta beste batean *fede* (209r). Bokal bikoitzak ez du azalbide garbirik (cf. Mounole eta Lakarra, 2018: 415). Hasteko, ez da sistematikoa testu honetan bertan. Bestalde, garai bertuko Utergako ezkontza-fedean beste bokala da bikoitza, *ala fedee* baitago. Sistematikotasun falta ikusita, kontu grafiko hutsa izan daiteke, gaztelaniaz oraindik *fee* idazten baita, eta akaso inoiz ahoskatu, latinetiko *fe(d)e(m)* batetik.

11. Jatorrizkoan *eçaçu*.

12. «Que quieren dezir en romançe: ¡Iros a los diablos, guiton, borracho, ruyñ, romero! ¿para que me estays a mi pidiendo los quarteles? ¡paga vos lo que debeys a Pedro Sala!» (205v-206r).

13. Errebisatzaile anonimoaren gaztiguz badakit 1743ko sermoi batean *costumbre zarra becatuan egoteco* datorrela eta hori, itxuraz, 'txar' omen dela (Reguero 2017: 366).

batean, 1529an, çu çara vellaquo çarra, ‘vos soys vellaco viejo’ itzuli zuten eta 1584ko batean, Iruñean ere bai, *cornudo çarra* eta *adaburu çarra* ‘cornudo viejo’ zen. Edonola ere, ordurako hasperenaren galerak eragin zukeen bokal bikoitza bakandua dago, testu nafar arkaikoetan ohi bezala¹⁴: mendebalderago jo behar dugu testu arkaikoetan horrelakoak kausitzeko (Mounole eta Lakarra, 2018: 415).

Sinkopa bat dugu *atra* hitzean, (5)eko adibidean. Oso ohikoa da sinkopa hitz honetan, baita beste hitzetan sinkoparik ageri ez duten hizkeretan ere. Altsasuko auzibide batean 1648an frankotan ageri da, nahiz eta *atera* ere baden, Badoztaingo batean ere bai 1606an, eta orobat Iruñean 1596an eta Leitzaan 1626an, *aterarekin* batera (Reguero, 2017: 126 eta hur., 142, 162, 293 eta hur.). Beriainek ere badu, eta geroagoko testu nafarretan ere ardura ageri da. Haatik, hau dateke lekukotasunik zaharrena une honetan¹⁵.

Izen-morfologiara jauzi eginda, irainetan batez ere ageri diren *-ori* eta *-orrec* erakusletzat baino, artikulutzat har daitezke, segurik. Hala ere, badira horren alde zein kontra egiteko zenbait aipagai. Artikulua izan gabe, irainetan egun ere ohikoa da bigarren graduako erakuslea kausitzea¹⁶. Gainera, *çarra/xarra* ere badugu (2) eta (6) adibideetan, baita *xarquia* ere (1)en. Reguerok (2017: 725 eta hur.) Maioraren (2011) datuetatik ateratako irain-zerrendan, bestalde, adibide gehienak dira hirugarren graduako artikuluekin eginak, Barasoainen 1565ean dagoen *andurr çarr orrec*¹⁷, 1571n Iruñean ageri den *agot çarori* eta Beteluko 1598ko *mandory* kenduta. Dena den, interesgarriena *puñalori* dugu, artikulua baten aurrean gaudela baieztatzeko. Irainen itzulpenak eman direnean, bokatiboak baitira, gaztelaniaz ez daramate artikulurik. Ordea, *puñalori* ‘el puñal’ itzuli du eskribauak, eta ez ‘ese puñal’. Nire ustez, horrek artikulua baten aitzinean gaudela pentsatzeko aukera indartzen du. Bestalde, *xarraorrec* forma dugu, hutsa segur aski, bi formen arteko nahasketa datekeena, eta ‘el ruyncillo’ itzuli dena. Reguerok (2017) horrelakoak artikulua hurbiltzat ohi ditu, eta Nafarroan bakanka ageri direla erakutsi du, baina maila berean sartzen ditu plural hurbilak eta horrelako singularrak. Horri loturik, ez ditu graduak bereizten; hots, zaku berean ageri dira *-au* eta *-ori*, bi gradu desberdin direla kontuan hartu gabe eta, ondorioz, kronologia eta hedadura desberdina izan dezaketela aipatu gabe (cf. Mounole eta Lakarra, 2018: 421-422; Mounole eta Gómez-López, 2018: 500)¹⁸. Inoiz euskararen eremu osokoak izan bide dira horrelako artikulua (Mitxelena, 1979: 392 eta hur.; Trask, 1997: 199; Manterola, 2015: 27 eta hur.), eta euskara arkaikoan ere hala da hein batean (Mounole eta Lakarra, 2018: 421-422).

14. Beriainek badu, hala ere, *leen* (Mounole eta Gómez-López, 2018: 495).

15. XIX. mendean ere adizki sinkopadunak bazeuden hizpide dugun eremuaren inguruan: *dre* jaso zuen Bonapartek Agoitzen, Mugetan, Aietxun edo Adoainen, besteak beste (Irizar, 1992: 26).

16. Iker Salaberrik gaztigatu didanez, zenbait autorek erakusletik artikulurako gramatikalizazio-prozesuan tarteko urratsean daudenei «artroide» deritzote. Propietate bereziak izan dituzte; besteak beste, erreferentzia adierazgarri/peioratiboa egiteko baliatzen dira (cf. Ratkus, 2010: 246).

17. Testuinguruak ez du argitzen erakuslea edo artikulua den. Ikus beherago, gainera, ergatiboan egoteak dakarren oztopoa.

18. Errebisatzaile batek gaztigatu didanez, Nafarroan garai arkaikoan lehen graduakoak baizik ez dira ageri, eta garai zaharrenean bigarrenekoak, baina datu gutxiegi daude horien banaketa diakronikoaz ondorio irmorik ateratzeko.

Postposizioei nagokiela, ablatiboa *-tik* dugu singularrean, eta adlatibo pluralean *-etara*. Horiek dira ohiko aldaerak Nafarroan XVI. mendean (Mounole eta Lakarra, 2018: 426). Badira, hala ere, *-rat* batzuk Nafarroako testu zaharretan. Horien artean bereziki aipagarria deritzot, aztergai dugun testuarekiko hurbiltasun geografiko eta kronologikoagatik, Irunberrin 1629an ageri den *onat* formari (ConTAV 160), nahiz eta ezin ziurta daitekeen esaldiaren ekoizlea irunberriarra zen.

Erakuslea *ortic* da, hastapeneko herskaririk gabe. XVIII. mendetik aitzina Nafarroako erdialde eta ekialdean batik bat forma herskaridunak baditugu ere (hedadurarako, cf. Camino, 2003a: 443, 2003b: 74), testu zaharretan ez da horrela. Herskari ahoskabetun formak (izan) dituzten hizkeretako testu zaharretan ez dira ageri: XVI. mendeko Erronkaribarko Burgiko sorginkeria-prozesuan (ConTAV § 5.2.3), Zuberoa eta Erronkaribarren arteko 1616ko gutunetan (Lakarra, 2011: 209-210; Bilbao *et al.*, prestatzen), edo Otsagabiko 1598ko pasarteetan (Santazilia, 2015: 124 eta hur.) ez dago halakorik, baina XIV. mendeko Pater Noster Txikian arras gardena ez den *gura* bat dago (TAV § 2.2.15: 7. lerroa). Forma hauek inoiz orokorrak izan zirela pentsatzeko arrazoi handirik ez dago (cf. Reguero, 2012: 141) eta, berrikuntza badira (Lakarra, 2015: 432), baliteke XVI. mendean oraindik sortu edo sobera hedatu gabe goatea.

Helburua adierazteko *-tako* dugu, Sueskunen bertsoetan (TAV § 3.1.19), Felipe IV.aren omenezko kopletan (TAV § 3.1.28), eta oro har Nafarroa osoan bezala, baita geroago ere, Elizalderen edo Lizarraga Elkanokoaren hizkeretan kasu. Bai Euskal Klasikoen Corpusak (EKC) bai OEhk (sv. *zertako* eta *zertarako*), bestalde, ez dute *zertarako* aldaera XVIII. mendera arte jasotzen.

Aditz-morfologiara jauzi eginik, aginterazko adizkiek aditzoina darabilte, *quen aquit* (3) eta *paga eçaçu* (8) adibideetan ikus daitekeenez. XVI. mendeko Nafarroan hori da espero dugun egoera, are gehiago *-tu/-du* partizipiodun adizkiekin (Mounole, 2007: 85): horrelakoetan *-i* partizipioaren erabilera lehenago sartu bazen ere, XVII. mendetik aurrera hedatu bide zen, mendebaldetik abiatuta (Reguero, 2017: 590, Mounole eta Lakarra 2018: 427-428). Ez dago, guk dakigula, *-tu* partizipiodun formarik indikatibotik landara XVI. mendeko testu nafarretan.

Testua aski ekialdekoa baita, merezi du aipatzea Nor-Nori-Nork saileko *badio* forman *-i(n)-* erroa dugula, eta ez **eradun* (cf. honen historiaz Lakarra 2011: 197-198). Iparraldeko testu zaharretan datiboa 3. pertsona denean agertzen da *-i(n)-*eradun* baino gehiago (Mounole, 2011: 137 eta 259), Gipuzkoan bada alerik garai arkaikoan objektua plurala denean (Mounole eta Lakarra, 2018: 432) eta Nafarroako testuetan ere bi erroen arteko txandaketa ohikoa da, baina horietan ez da erraza beti hautu hori zeren araberakoa den argitzea (Mounole, 2011: 137-138; Reguero, 2015: 591-592). Ezkurrako eta Etxauriko 1596ko auzibide banatan, esaterako, biak ageri dira batera (Santazilia, 2015: 129)¹⁹. Berriki Reguerok (2018) argudio zenbait eman ditu **eradun* formaren zahartasunaren alde, *-i(n)-* erdigunetik hedatu dela

19. Horra txandaketaren adibide garbi bat. Beran XVII. mendearen bigarren erdian ekoitzi eta jasotako pasarte batek honakoa dio: «**otoy eguiten derauçut** eguin deaçadazun favore egorceaz bi eun erreal diruriq, berce aldi batean falta yzanen bada ere, eta dozana bat errugo ogui eta baba, eta **otoy eguiten dizut** despacha detzatzun, arren, laster» (Urrizola, 2006: 265. Beltza geurea).

esanez. Haatik, bi formak ageri dira Nafarroan XVI. mendetik, eta *-i(n)-* San Vicenten agertzeaz gain, Otsagabian eta Ezkarozen ere badugu XVI. mende hondarrean (Reguero, 2017: 601). Nire ustez, Reguerok arrazoia badu, XVI. menderako berrikuntza ekialdera aski hedatua bide zegoen²⁰. Hizpide dugun adizki horretan, bestetik, baldintza adierazteko *badio* dugu, eta ez garai arkaikoan oraindik kausi zitekeen [aditzoina + *ba-**ezan] egitura (Mounole eta Lakarra, 2018: 444).

Hikako aginteran *aquit* dugu. Lazarragak (Bilbao *et al.*, 2012) duen *quen aquit neure begietaric* edo *quen aquit orrean* formekin alderatuz, garaian ohiko egitura zatekeela dirudi.

Joan aditzaren agintera trinko singularrean *çoaz* dugu. Adizki honetako *-i* amaieradun formak Lapurdin XVII. mende hastapenetik bederen baditugu, Materraren testuan esaterako. Nafarroan, ematen du geroagoko garaietara jo behar dugula horiek edireteko, nahiz eta gero eremu zabala hartu duten (Camino, 2013: 131). Reguerok (2017: 596-7) dakarrenez, Gorritiko 1554ko lekukotasunean *çoaz* dugu, eta *çoas* Artaxoan 1607an. Lehen forma bokalduna 1656ko Aroztegi-Atezko lekukotasunean dugu, *çoaçe* baitakar singularrean, eta Obanosko 1744ko bertsoek dakarte *-i*-dun *doaci* lehendabizikoz. Nire ustez, Iruñean 1632an dagoen *çoaçã* ez da *-e* eta *-i* hondarrekiko formekin nahasi behar, azken biak loturik egon baitaitezke, baina ez lehena: horrek bestelako jatorria duke.

Egon aditzaren Nor-Nori forma dugu *çagozquit*. Uste dut adizki honen forma trinkoaren lehen lekukotasuna dugula Nafarroan, eta EKCrean arabera, are euskal testuetan ere. Forma hau *-z egon* egituraren barnean ulertu behar da. Gaztelaniaz «para que me estays a mi pidiendo los quarteles?» itzuli bazen ere, ez dugu zertan *ari izan* espero. Gisa bereko egiturak, hots, moduzko adiera puntukaria duen *-z egon* tankerakoak, Iparraldeko testu zaharretan inoiz emankorragoak izan zitezkeela ematen du. Aipa ditzadan adibide gisa Etxeparek edo Leizarragak duten *miraz egon* edo aski hedatua dagoen *otoitzez egon*, besteak beste Oihenarten *Her-jauna otoiez dagoenean botoiari, keinuz dauke uheari* errefrauan ageri dena, baita lapurtera klasikoko anitz autorerengan ere. Nafar testuetan ere badira; esaterako, Obanosko XVIII. mendeko bertsoetan *oyus dago* daukagu (Reguero, 2017: 350). OEhk (s.v. *galdez*), ordea, *galdez egon* bezalako egitura bat, 'eskatu'-ren adieran eta objektua absolutiboan duela, Iparraldekotzat du eskusiboki Leizarragaren testuetarik dagoeneko. Honako hau litzateke gisa horretako Hegoaldeko lehen testigantza, eta bakanetakoa.

Aditz-morfologiari amaiera emateko, gogora dezadan datibo-komunztadura falta dela *paga eçaçu çuc çor duçuna Pedro Salari* esaldian. Datibo-komunztadura ezaren adibideak ere badira 1549an Irañetak Juan Saldiasi idatzitako gutunean (TAV § 2.2.16), Pedro Ezkurak eta Aldatzek idatzi eta 1609an Iruñean saritu olerkietan, eta Leitzako 1626ko gutun batean (Reguero, 2017: 295), baita geroagoko testuetan ere. Haatik, ez dago garbi komunztadura *eçaçu* adizkiak edo *duçunak* behar duen; hau da, *Pedro Salari* sintagma zein adizkiri dagokion. Erdal itzulpenean hala dator: *paga vos lo que debeys a Pedro Sala*. Hitz-ordenak *duçuna* adizkiarekiko

20. Reguerok berak onartzen duenez, Erronkaribarko eta Zaraitzuko lekukotasunetan lehen testuetarik dauden *-i(n)-* erroko adizkiak arazotsuak dira erro horren berritasunaren alde egiteko orduan.

komunztaduraren alde egiten du, baina ez da argudio sendoa. Mounolek (2015), baina, perpaus ditransitiboetako datibo-komunztaduraren gramatikalizaziorako honako hurrenkera kronologiko hau proposatu du: adizki trinkoak > *izan* eta **edun* erroko perifrasiak > **ezan* erroa. Pasarte berean *çagozquit* trinkoa dugu, eta beste batean *dio*. *Pedro Salari* sintagmak *paga eçaçu* sintagmarekin komunztatzen duela onartzen badugu, Mounoleren aurreikuspena beteko litzateke, eta honako ordena hau ezar genezake: trinkoa (*çagozquit*) > *izan* eta **edun* erroko perifrasiak (*dio*) > **ezan* erroa (*eçaçu*). Hori horrela, San Vicenteko testu honek ageri duen hizkera azken urratsa eman gabe legoke; **ezan* erroko adizkiek ez leukakete oraindik datibo-komunztadura guztiz gramatikalizaturik²¹.

Hiztegiari so, irainetan bereziki aberatsa da prozesu hau. Horietarik franko konposatuak dira, euskaraz ohi bezala (cf. Salaberri eta Zubiri, 2007), halaber *dollor vorracho xarra* edo *borracho xarr guiton xarra*. Ikus ditzagun hitzok banaka. *Vorracho* mailegua da prozesu honetan ageri den bakarra. Horren kontra (*h*)ordi dago Iruñean 1535eko, 1583ko eta 1595eko justizia-auzibide banatan, eta mende batzuk geroago, Lizarraga Elkanokoak ere badakar. Ematen du (*h*)ordi inoiz orokorra izan dela; izan ere, mendebaldeko euskaran ere kausi daiteke: *Refranes y Sentencias* bilduman badugu, baita Landucciren hiztegian ere besteak beste, OEHk (s.v. *hordi*) darakusenez. Erdaratiko mailegu zuzena, haatik, ez dugu inongo garai edo hizkeratan kausitu. *Doilor* ere —eta horren aldaerak— aski irain ezaguna da XVI. mendeko Nafarroan. Iruñean 1545ean badugu, baita Bakedaon 1566an eta Larrasoañan 1606an ere (Reguero, 2017: 140, 147, 726). OEHk (s.v. *doilor*) dioskunez, Nafarroatik landara ere, garai bertsuan Lazarragak badu, eta *Refranes y Sentenciasek* ere bai: hartara, irain ezaguna zen tenore hartan²².

Guiton hitza erdal mailegua da. DRAEk hala definitzen du hitza: ‘vagabundo (errante y sin domicilio fijo)’. Guk dakigula ez da euskaraz beste inongo izkiriotan ageri. Zentzu bereko beste bi hitz ere baditugu; *erromes* batetik, eta *guilote* bestetik. Lehena nasaiki erabili izan da zentzu horrekin euskal autoreen artean. Dagokigun eremuan eta garaian, *errumes çar* dugu hurbilen Añorbe-Tirapun 1546an, eta Martinez Saratsakoaren olerkietan, 1610ean²³. Ordea, *guilote* hitzaren lehendabiziko testigantza hemengoa dela uste dut. *Guiton* itzuli da auzibidean berean, baina *guilote* hitz ezaguna da gaztelaniaz, eta ‘Holgazán y desaplicado’ adiera du DRAEn. Çarquiari eta *xarquia* hitzetan çarqui/*xarqui* identifika daiteke. Irainetan ageri ohi den *txar* edo *zahar* delakoarekin loturik, OEHk (s.v. *zaharki*) dio Harrieten hiztegian ‘guraso zaharregandiko umea’ ere esan nahi duela, edo ‘haragi zaharra’. Salaberri Zaratiegik iradoki didanez, ordea, *-ki(n)* hipokoristiko despektiboa izan daiteke (cf. *ruyncillo*); izan ere, bestelako izen bereziekin batera, *Sanso Zarquina* izena dago Artaxoan 1158an (Salaberri Zaratiegi, 2009: 139-141).

Alafede edo horren aldaerarik Uitziko ezkontza-fedean kausi daiteke 1506an, Zufikoan 1552an eta Espartzakoan ere bai 1556an (Reguero, 2017: § 2.2.7), baina

21. Ere mu honetan hiru aktanteetako adizkietan **erazan* espero genuke segur aski (cf. orain Reguero, 2018).

22. Hori horrela, oker dago OEH lehen agerraldia Larramendirena dela esatean.

23. Reguerok (2017: 226) dio lehen lekukotasuna Martinez Saratsakoarena dela, baina bere lanean berean dakar Añorbe-Tirapukoa ere, lehenagokoa dena.

horietan ez du zentzu txarrik, zin hutsarena baizik, eta hala da horren jatorrian dagoen gaztelaniazko *a la fe* forman ere. Ez dakusat oso garbi zergatik jaso ziren hitzok auzibide honetan irain gisa eta zergatik esan ziren ahapeka, zentzu txarrik ez baitzuten. Testuinguruari begiratuta ere, ez dirudi juramentu faltsu batekin ere lot daitezkeenik. Menturaz, Villanuevak labana erabiltzeko zina egin zuen orduan.

5.2. Arlegi, 1581 (NEAN 39144)

Pedro Arana Arlegiko apaizak Juan Beltzuntze eta haren aitagarreba Beltran Bergara, Arlegiko biztanleak biak, salatu zituen indarrez etxe eta ardandegi bat bereganatzeagatik. Martin Arlegi eta Katalina Subizarenak ziren jabetza horiek eta apaiza zen horien kudeatzaile legezkoa. 1581ean, Beltzuntzek apezak gordetzen zituen etxeko giltzak lortu zituen amarru bidez. Barnetik upel bat atera behar zuelakoan, apezaren neskame Graziana Etsaini galdegin zion elizgizonari giltzak eskatzeko. Grazianak hastapenean ezetz, ez zuela Aranaren atsedena eten nahi. Geroago, ordea, Graziana erretorearengana joan eta Beltzuntzeren asmoa agertu ondoren, apezak giltzak eman zizkion neskari, mutila etxera lagun zezan. Sartu zirenean, neskameak giltzak sarrailan zintzilik utzi zituen, baita Beltzuntzek hori profintatu ere, giltzak harrapatzeko eta Graziana handik bidaltzeko. Apeza, gertatutakoaren berri jakitean, herriko bi kargudunekin batera inguratu zen etxe okupatura, giltzak eskuratzerara. Orduan sortu zen liskarra. Beltzuntzek eta Beltranek etxea erabiltzeko eta barnean zuen guztia berenizat gelditzeko eskubidea aldarrikatu zuten, eta apaizak barneko gauza zenbait bereak zirela ihardetsi.

1581eko urriaren 2an Migel Arizkun eskribauak Grazianari, 28 urteko neskameari egin zion galdeketa. Neskak gertatutakoa kontatu, eta Beltzuntzek erretoreari ukabila erakutsi ziola salatu zuen. Neskameari, nonbait, errespetu falta iruditu zitzaion, gainera, salatuak elizgizonari konfiantzazko tratamenduan zuzendu izana²⁴. Galdeketa bereborean, Esteban Baigorri Arlegiko biztanleak ere tratamenduarena aipatu zuen²⁵.

Gertakarian euskara erabili izanaren arrastorik ez dago dokumentazio guztian, eta gauzak euskaraz gertatu zirela ez genezake jakin, Pedro Gabadik 1581eko abenduaren 2an Baigorriari bigarrenetik hartutako lekukotasunagatik izan ez balitz. Eztabaida egiazki euskaraz izan zela, hain zuzen ere, tratamenduaren gorabeherei esker jakin daiteke. Aurreko aitortza berretsi egin zuen Baigorri, baina oraingoan salatuek konfiantzazko tratamendua erabili zutela ukatu egin zuen. Salatuek apaizari zuka egin ziotela erakusteko, Beltzuntzek Aranari etxera sartzea eragozteko baliatu zituen hitzak errepikatu zituen Baigorri: «donde dize que el defendiente trato al demandante de tu no ha de dezir sino de vos, porque conforme el comun ablar del bascuence, le trataba...»

(9) su eçara emen çartuco (60v)²⁶

24. «...y al tiempo tambien bio y oyo de como le trataban dichos acusados al dicho abad de tu...» (8v).

25. «con el puño cerrado al dicho abad tratandole de vos y de tu a bezes» (8v).

26. «que quiere dezir: no entrareis aqui» (60v).

Txistukariak adierazteko eskribauak darabiltzan grafemei begira, deigarria da bizkarkarirako <s> eta apikarirako <ç> agertzea, ez baitugu testuinguru horretan neutralizaziorik espero Nafarroan (*FHV* § 14.2), eta ez baitirudi Migel Arizkun eskribauaren hizkeran ere halakorik zegoenik, jatorria abizena ematen dion herrian badu, behinik behin. Garai arkaikoan mendebaldeko hizkeretan ere hasiberritan da neutralizazioa, eta garai zaharrean hedatuko (Mounole eta Gómez-López, 2018: 498-499). Egia da egungo Nafarroan balio apikaria izan dezaketen <s>-ak badirela auzibideetan, hala hitz-hasieran nola bokalen artean²⁷, Regueroren (2017: 132, 142, 185) ustez orduan bizkarkari ahoskatzen bide zirenak, *sein* ‘zein’ (Santsoain, 1594), *Alsusaten* (Olatz-Txipi, 1596)²⁸, *saisquit* (Badoztain, 1606) edo *suc* (Lesaka, 1549; Altsasu, 1648) kasu, baina ez dago sistematikotasunik, are testu bakoitzaren barnean ere²⁹. Nik neuk, hala ere, ez nuke baztertuko hautu grafikoa baino ez izatea. Arraragoa da, ordea, *sartu* aditzaren txistukari ustez bizkarkaria, zeinarendako azalpen garbirik ezin eman dezakedan.

Apaizaren estatusari zegokion tratamendua ez beste bat erabiltzea ere ez zen nolanhiko gauza. Ikusi dugunez, auzian apaizari zuka egin ziotela argi utzi nahi izan zuten salatuek, eta ez hika. Altsasuko 1648ko auzi batean ere, apezari *çure mersedea* edo *orre mersedea* esatea ohikoa izanagatik ere, zuka zuzentzea —eta ez berorika— iraintzat ezin har zitekeela frogatzen saiatu ziren akusatuak (Erdozia, 2005: 315).

Geroaldia islatzeko [-*tuko* + **izan*] motako perifrasiak dugu hemen. Hura zen garai arkaikoan formarik ohikoena, nahiz eta bestelako aukerak ere egon, *fase sparitan* hain segur: **iron* erroa edo [aditzoina + **ezan-te/-ke*], esaterako (Mounole eta Lakarra, 2018: 436 eta hur.). Egitura horrek gainerakoak baztertuko ditu garai zaharrean (Mounole eta Gómez-López, 2018: 513).

Ezeztapenaren hitz-ordenan bada zer esanik. XVI. mendeko testu zenbaitetan oraindik [aditz nagusia + ez + aditz laguntzailea] hurrenkera ikus dezakegu perpau nagusietan. Salaberri Izkok (2018) berriki erakutsi duenez, ekialdera jo eta denboran aurrera egin ahala, [ez + aditz laguntzailea + aditz nagusia] gailenduko da. Mendebaldeko euskaratik landara, Etxepareren lanean eta Amenduxen olerkian oraindik bada hurrenkera zaharraren aztarnarik (Salaberri Izko, 2018) eta XVII. mendean Errazkingo apaizak ere eman zuen horrelako bat (ConTAV 108). Nafarroan, beraz, oso bakan dago forma zaharra garai hartan, eta ohikoena hemen duguna da.

27. Hitz-bukaeran eta herskari aurreko posizioan, ordea, ohikoagoa da.

28. Patxi Salaberri Zaratiegik ohartarazi didanez, lekukotasunek Altsusate dakarte izen honendako, eta baliteke jatorrian bizkarkaririk ez egotea.

29. Mounolek eta Gómez-Lópezek (2018: 499) Nafarroan garai zaharrean neutralizazioa herskari aurrean baizik ez dela gertatzen diote. Ez dituzte, hartara, Regueroren adibideak aintzat hartu. Bestalde, Eneko Zuloagak gaztigatu didanez, kontuan hartu behar da XVI.-XVII. mendeetan iraultza fonologiko bat gertatu zela gaztelaniaz: zeuden bi afrikatuak ahuldu egin ziren eta frikari bihurtu, eta ahostun/ahoskabe bereizketa ahoskabeen alde neutralizatu. Aldaketa-prozesu hori luze samarra izan bide zen, eta zalantzak eta gorabeherak eragin bide zituen hainbat hizkera eta egileren hautu ortografikoetan.

5.3. Iruñea, 1581 (NEAN 294859)

Konkistaz geroz, Gaztelako soldaduz bete zen Iruñea hiri gotorra, eta erresuma guztia. Hein handi batean gipuzkoarrak ziren soldaduok, besteak beste, euskara balia zezaketelako nafar euskaldun elebkarrekin.

1580ko martxoaren 5eko gauean, 30 urteko Campuzanoren konpainiako soldadu tolosar bat, Juan Urrutia izenekoa, Mari Juan Agorreta «Txutxurrua» eta Joanes Ozkaritz senar-emazteen etxera inguratu zen. Domingo Lariz eta Domingo Aiertza soldadu gipuzkoarrak ere bertan ziren senar-emazteekin afaritan. Kartetan aritu ondoren, biharamunean bazkaritarako itzultzea adostu, eta hiru soldaduek etxetik alde egin zuten horditurik.

Bazkaltzeko hitzordua ailegatu, eta Urrutia agertu ez. Astelehenean, neskame batek Urrutiaren gorpua aurkitu zuen San Nikolas ondoko putzu batean eta, zirudenez, putzuratu baino lehen norbaitek eskuz ito izanaren arrastoak zituen. Gau hartan hildakoarekin batera egon ziren beste bi soldaduek ezin izan zuten azalpen garbirik eman, eta putzura erori bide zela esan zuten.

Franko dira euskaraz egin ziren galdeketak eta esan ziren hitzak, auzibidean berean aitortzen denez, baina bakar bat ere ez zen zuzenean euskaraz jaso. 1580ko martxoaren 7an soldaduen alkate Ibáñez Viñasprek galdeketa egin zuen Jacobo Ondarra eskribauaren laguntzaz. Galdeketa horietako batean Mari Juan Agorretak gau hartan afarian zuten giroa deskribatu zuen: Urrutia amodiozko kantutan ari omen zen, euskaraz:

(10) lastan enea, lastan enea... (4v)

Mozkorragatik edo, ez omen zuen oso ongi asmatzen kantuan³⁰. Ez dago euskarazko pasarte gehiagorik, 1580ko apirilaren 27an Katalina Berriozar Mari Juan Agorretaren neskame izandakoak Ibañezi emandako erantzunean ageri den hitza baizik. Neskatilak Urrutiari zerbait egingo ziotelakoan, honakoa esan zuen:

(11) ay, ay, ama! ¡que llevan al hombre! (60r)

* * *

Zoritarrez ez dugu amodio-kantuaren hasiera baizik, baina zuzenean dakarkigu gogora garai bertsean idatziz paratutako Estibaliz Sasiolakoren eskuizkribuan honako hasiera duen amodiozko olerkia: *Laztan enea, naygaran sure atean arteti...* apur bat aurrerago *Ene lastan çuri ederra...* dioena. Eskuizkribu horretan berean, *Ene lastana, ene lindea...* (1184r) du abiaburu beste poema batek (cf. Bilbao *et al.*, 2012).

Horrek pentsarazi dit izenordain posesiboa eskuinetara daraman egitura hori ez ote dagoen orduko kantetan iharturik³¹; izan ere, ediziozileek berek diotenez (cf. Bilbao *et al.*, 2012), ordena hori zazpi aldiz baizik ez da ageri Lazarragaren

30. «le parece a esta testigo que no acertaba muy bien...» (4v).

31. Hala bide da euskara zaharrean agertzen diren adibideetan (Mounole eta Gómez-López, 2018: 521).

eskuizkribuan, eta bi aldiz *ama enea* bezalako egituran, baina *ene lastana* du Lope de Vegak (cf. TAV § 3.1.23), eta 1695eko Eguberri kanta arabarrak (Knörr eta Zuazo, 1998: 508)³². Krajewskak (2017: 285) dioenez, testu zaharretan izenordainak dira maizenik izenaren eskuinetara ageri direnak, hemen bezala, eta batik bat Araba eta Nafarroako testuetan.

Bestetik, izenordainaren beraren forma dugu aipatzeko. *Ene* da XVI. mendean euskararen eremu osoan aurkitzen dugun forma indartugabe bakarra (cf. OEH s.v. *ene*; Mounole eta Lakarra, 2018: 424).

Fonologia atalean, herskari aurretiko <s> grafemak hots apikaria adieraz dezake, orokorra baita, lehen testuetatik, herskari aurreko apikaritze hori (*FHV* § 14.2). Gainera, *laztan* hitzean, Hegoaldeko testuetan XVI. mendetik dokumentaturik dugun horretan (cf. OEH s.v. *laztan*), forma apikaria dago txistukariaren neutralizaziorik ageri ez duen mendebaleko kanta zahar batean (Irigoien, 1978), eta Oihenartek ere hala darabil. Are gehiago, garai arkaikoan mendebaleko hizkeretan geroago orokortuko den txistukari apikari eta bizkarkariaren arteko neutralizazioa hasiberritan egonik ere, herskari aurrean ohikoago da (Mounole eta Lakarra, 2018: 418)

Bukatzeko, desadan *ai ama!* harridurazko perpausa, hizkera guztietan posible dena, Uxuen ere agertu dela idatziz, 1637an (Maiora, 2017: 34).

5.4. Uxue, 1581 (NEAN 56284)

Ez dira gutxi XVI. mendean —eta geroago batez ere— Uxue herri euskalduna zela erakusten duten zeharkako lekukotasunak. Toponimiatik erauz daitezkeen ondorioez gain (Salaberri Zaratiegi, 1994, 2004, 2006), 1587ko Nafarroako herrien zerrendan euskaldun ageri da Uxue (Lekuona, 1933: 371, 373), nahiz eta 1527ko gatibuen buldatik eratorritako kontuetan erdaldunen artean egon (Monteano, 2017: 247). Bestalde, 1611n uxuetar bati egindako ebakuntzan, zirujauaren laguntzaile aritu zen Mañeru delakoak euskaraz esan omen zituen hitz zenbait. Mañeru jatorriz ziraukiarra zen, baina euskarazko hitzak entzun eta ulertu zituena, Anton Burgi uxuetarra (Casanova, 2012). Berriki Fernando Maiorak (2017: 35) aurkitu duenez, San Martin Unxeko biztanle batek Pedro Sola eskribauak euskaraz oso ongi zekiela argitu zuen 1666. urtean, Uxuekoa baitzen, «a donde todos son vascongados». Bestalde, 1676. urtean priorea hautatu behar izan zuten. Erregeari zegokion lan hori, eta koroak hautagaiak euskaraz jakin behar zuen ala ez galdetuta, apezpikuak ikerketak egin, eta baiezkoa erantzun zuen, herrian hori baitzen ohiko hizkuntza (Garmendia, 1977; Monteano, 2017: 178-179).

Geroagoko lekukotasunak ere badaude; beraz, dudarik ez dago hizpide dugun urtean, 1581ean, euskalduna zela herria. Haatik, zuzeneko lekukotasunak ments ziren: orain arte ez genuen euskarazko testurik, laburra izanik ere³³. Aztergai dugun

32. Egitura jakin batzuetan iharturik agertzeak ez du esan nahi, hala ere, aurretiko genitiboak baino zaharragoak direnik (cf. Krajewska, 2017: 294).

33. Salbuespen txiki batekin: 1637ko auzibide batean «ay, ay, ama» ageri da Uxuen (Maiora, 2017: 34). Bestalde, berriki, artikulua hau bukatua zenean, 1581ko pasarte luzexeago bat aurkitu du Peio J. Monteanok. Laster eskainiko dugu horren edizioa hurrengo lan batean.

prozesuak badakar esaldi labur bat, Peio Monteanok (2017: 178) ere gaur egungo euskarara bihurturik eman duena.

Gertakaria aski gordina da. Juan Muru eta Juana Martinez, Graziana Muru neskatoaren gurasoek, salaketa jarri zioten Juanes Arbeloari, alaba bortxatu zuelakoan. Eztabaidagai dago gertatutakoa bi gazteek hala nahita gertatu zenetz, egiazko bortxaketa izan zenetz, eta Arbeloa bera erruduna zenetz.

1581eko maiatzaren 4an herriko alkateak hamar urte inguru besterik ez bide zuen biktimaren testigantza jaso zuen. Gertakaria aurreko astelehenean, maiatzaren 2an jazo zen. Grazianaren aita Otrolosandi delako aurkintzan omen zebilen unai, eta alaba herrira bidali zuen ogi bila. Mendialdeko batzuen behiari ezkila jartzekotan zen han Arbeloa ere. Herriraino legoa baten bidea baitzen, eta Graziana gaztea izanik, begi onez ikusi zuen aitak Arbeloak egindako eskaintza; neska gaztea laguntzekoa. Neskatoak laguntzarik nahi ez, baina mutikoa, ogia eramateko zakutoa neskari hartuta, tematu. Han joan dira biak. Legoa erdiren bidea egina zutenean, Arbeloak saihezbide batetik gidatu Graziana, eskuak estekatu, neskaren buruko zapiaz ahoa estali, eta bertan kendu omen zion birjintasuna.

Epaiketan berebizikoa zen bi gazteen adina ezagutzea, mutila uste baino gazteagoa bazen eta neska, aldiz, helduagoa, ez baitzen mutikoari estuproa leporatzerik. Bataio-agiriari esker Grazianak hamalau urte zituela jakin zuten, hamar zituela esan arren, baina Arbeloaren agiria elizan aurkitzerik ez, eta lekukoek argitu behar izan zuten hogeita bost urtetik beherakoa zela; hogeita bi ingurukoa, hain zuzen. Lekuko horiei esker dakigu, bide batez, ikuspegi soziolinguistikotik garrantzi handikoa den datua, hitzen ekoizlearen sorlekua. Besteak beste Gartzia Zuria edo Joan Xurio lekukoek Kristobal Mendigorria eskribauari esan ziotenez, Juanes Arbeloa gaztea Domenjon delakoaren semea zen eta Uxuen sortua, betidanik baitzuten auzo eta ez baitzuen sekula herria utzi (29v, 30r).

Prozesuak ziraueno Arbeloa Iruñeko presondegira eraman zuten eta, presoaren abokatuak horretarako arrazoi garbirik ikusi ez bazuen ere, tortura eman zioten gazteari, egia aitor zezan. Rada eta Sueskun alkateak bertan zirela, Esteban Martinez borrheroa lagun, Arbeloak, sufrikarioan, honakoa bota zuen ahotik:

(12) estugu alacoric eguin (55v)³⁴

Eta sokak berriz estututa ere, Arbeloa tinko, ezetz eta ezetz, ahoan ura bota eta konortea galdu zuen arte. 1581eko uztailaren 18an kondenatu zuten mutila Iruñeko karriketan barna zaldi gainean ibiltzera gerritik gora larru-has, tronpetek eta pregoilariak iragarrita eta, horrezaz gain, ehun zigor-ukaldi jasotzera eta bost urteren galeretara, nahiz eta irudi duen gerora bestelako konponbidea aurkitu zutela harentzat: neskarekin ezkontzea. Azkenean auzia nola ebatzi zen ez dakit.

* * *

Esaldiaren garrantzia ez dator hizkuntzaren barne-historiari edo dialektologiari egindako ekarpenetik, zoritxarrez ez baita bereziki aberatsa. Haatik, Uxueko

34. «no hemos hecho tal cosa» (55v).

lekukotasun bakarra dugu, eta herrian sortutako eta bertan bizitako batek esana dela ere frogaturik gelditu da.

Fonologian herskariaren ahoskabetzea dugu txistukariaren ondoren. Ezin jakin, ordea, txistukaria bizkarkaria den edo apikari bilakatu den herskari aurrean (*FHV* § 14.2), ala hautu grafikoa hutsa den. 1609ko Elizalderen olerkian baditugu dagoeneko *çatoste* edo *ezpagaysque* bezalakoak, ez sistematikoki, beraz, baliteke hots apikaria islatzea. Ikusi, ordea, *ezpagaysque* forman ez adizlagunak bizkarkaria atxiki duela. Ondoko autore zenbaitek ere bakanka badute horren adibiderik, hala Beriainek, nola Urdozko XVII. mendeko prozesu bateko pasarteek (Reguero, 2017: 556), eta mendebaldeko testuetan, garai arkaikoan, testuinguru horretan abiatu zen gero orokortuko den txistukariaren neutralizazioa (Mounole eta Lakarra, 2018: 418).

Harrigarri suertatzen da pluralaren erabilera, bai euskarazkoan, bai erdarazko itzulpenean ere. Testuinguruak, Arbeloa sufrikarioan dagoela, ez du plural maiestatikoaren alde egiten inondik ere, baina ezin argitu dezaket horren zergatia.³⁵

Ezeztapenari nagokiola, esan daiteke [aditz nagusia + ez + aditz laguntzailea] hurrenkera XVI. mendeko testuetan oraindik kausi badaiteke ere, ekialdera jo ahala [ez + aditz laguntzailea + aditz nagusia] gailentzen dela, nahiz eta Etxeparearen lanean eta Amenduxen olerkian oraindik baden alerik (Salaberri Izko, 2018). XVII. mendean Errazkingo apaizak ere eman zuen horrelako bat (ConTAV 108), baina urrun dago Uxue eremu hartatik.

6. Ezaugarrien zerrenda, hiztegia eta adizkitegia

Atal honetan aurreko testigantzetan iruzkindu ditudan ezaugarrien zerrenda eman dut lehenik, hiztegia gero eta adizkitegia buruenik³⁶.

Ezaugarrien taulan (cf. 1. taula), ezkerreko zutabean ezaugarriak zerrendatu ditut atalka sailkaturik, eta eskuinean zein auzibidetan ageri diren. Agerrera zalantzazkoa denean irakurketa, interpretazio edo analisiari so, galdera-ikurra paratu dut parentesien artean.

Hiztegian (cf. 2. taula) adizkiak ez beste hitz guztiak sartu ditut. Lemetan grafia gaurkotu dut egungo arauetara doituz, baita bustidurei dagokienez ere. Izenordainen eta erakusleen kasuan forma deklinatuak gorde baditut ere, izenak eta adjektiboak absolutibo mugagabeen eman ditut. Aditzei partizipio marka gehitu diet parentesi artean, jatorrizkoak bestelako aspektua duenean. Orobat, berrezarritako hasperenak parentesi artean ezarri ditut.

Adizkitegian (cf. 3. taula) forma trinkoak eta perifrastikoak banatu ditut, eta hurrenkera alfabetikoan eman. Hurrengo zutabean adizkiaren analisisa heldu da, eta azkenik, zein lekukotasunetan ageri den.

35. Grazianak eta berak, hots, biek harremanak eduki izana bera ukatzen ari ez bazen, bederen.

36. Laburdurok baliatu dira tauletan: A = Arlegiko lekukotasuna (1581); a. = aditza; ad. = adberbioa; adj. = adjektiboa; Agint. = agintera; I = Iruñeko lekukotasuna (1581); Ind. = Indikatiboa; interj. = interjekzioa; iz. = izena; izord. = izenordaina; or. = orainaldia; SV = San Vicenteko lekukotasuna (1578); U = Uxueko lekukotasuna (1581).

1. taula. Ezaugarrien zerrenda.

EZAUGARRIA	LEKUKOTASUNA
FONOLOGIA	
Sinkopa	SV
Txistukarien neutralizazioa(?)	A
Txistukarien neutralizazioa herskari aurretik	I, U
IZEN-MORFOLOGIA	
Bigarren graduko artikulua	SV
Hasierako herskaririk gabeko erakusleak	SV
<i>Ene</i> posesiboa	I
Ablatiboa: <i>-tik</i>	SV
Adlatiboa: <i>-ra</i>	SV
Heburuzko <i>-tako</i>	SV
ADITZ-MORFOLOGIA	
Aditzoina	SV
<i>-l(n)-</i> erroa (vs <i>*eradun</i>)	SV
Datibo-komunztadura falta	SV
Geroaldia [<i>-tuko</i> + <i>*izan</i>]	A
SINTAXIA	
Jabetza: [izena + izord. posesiboa]	I
<i>-z egon</i> egitura	SV
Ezeztapena: [ez + aditz laguntzailea + aditz nagusia]	A, U

2. taula. Hiztegia.

LEMA	KATEGORIA	LEKUKOTASUNA
ai	interj.	I
alafede	interj.	SV
ama	iz.	I
at(e)ra	a.	SV
bada	interj.	SV
borratxo	iz./adj.	SV
deabru	iz.	SV
doilor	iz./adj.	SV
egin	a.	U
ene	izord.	I
erromes	iz.	SV

galde	iz.	SV
gilote	iz.	SV
giton	iz/adj.	SV
gizon	iz.	SV
(h)alakorik	ad.	U
(h)emen	ad.	A
(h)ortik	ad.	SV
ken(du)	a.	SV
koartel	iz.	SV
laztan/lastan	iz.	I
niri	izord.	SV
paga(tu)	ad.	SV
puñal	iz.	SV
sartu	a.	A
za(ha)r	adj.	SV
za(ha)rki	adj.	SV
zertako	izord.	SV
zor	a.	SV
zu	izord.	A
zuk	izord.	SV

3. taula. Adizkitegia

TRINKOAK		
zagozkit	<i>egon</i> (Zu-Niri), Indik. or.	SV
zoaz	<i>joan</i> (Zu), Agint.	SV
PERIFRASTIKOAK		
(ba)dio	<i>-i(n)-</i> (Hark-Hari-Hura), Indik. or.	SV
dugu	* <i>edun</i> (Guk-Hura), Indik. or.	U
duzu	* <i>edun</i> (Zuk-Hura), Indik. or.	SV
ezazu	* <i>ezan</i> (Zuk-Hura), Agint.	SV
(h)akit	* <i>edin</i> (Hi-Niri), Agint.	SV
zara	<i>izan</i> (Zu), Indik. or.	A

7. Hondar-hitza

Azken urteetako ikerketak argi erakusten ari dira justizia-auzibide zaharrak datu-iturri interesgarria izan daitezkeela euskararen historiaren ezagutzarako; izan ere, erdaraz egonik ere, tarteka euskarazko pasarteak tartekatzen dituztela erakutsi dugu, eskribauek herritarren ahotik jasota. Kronologikoki ongi kokaturik ditugun testuak dira, eta ahozko euskaratik hurbilak. Gainera, usu leku eta garai bateko testigantza idatzi bakarra dira horrelakoak.

Lan honetan testu horiek nola ekoitzi eta jaso ziren azaldu dut, hizkuntzalaritza eta dialektologia historikorako datu-iturri gisa duten fidagarritasuna zenbaterainokoa den eztabaidatzeko. Ikusi dugunez, kronologiari so ez dute duda-izpirik uzten, eta badira tokiko hizkera jasotzen dutela esateko argudioak, baina baita Iruñeko euskara administratiboaren zantzuak egon daitezkeela pentsatzeko ere.

San Vicente, Arlegi, Iruñe eta Uxueko datuak ekarri ditut hona. Inoiz euskaradun izan zirela frogatzeko datuak egon arren, gutxi da bertako euskarari buruz dakiguna; are gutxiago, XVI. mendeko egoeraz. Hemen jasotako pasarteek, beraz, tokian tokiko hizkeren ezagutzari ekarpena egitearekin batera, euskara arkaikoari buruz dakigunari ere egin nahi diote ekarria.

Pasarte bakoitzaren ikerketarako auzibide guztiak osorik miatu ditut, testuak ahal bezain zorrotz testuinguratuz. Azterketan, ahal den neurrian, garaiko, tokiko eta genero bereko lanekin erkatu ditut, lan filologikoaren berme gisa, eta testuak dialektologian eta hizkuntzaren historian dagokien lekuan kokatzeko asmoz.

Justizia-auzibideetako testuen ikerketa sistematikoa hasiberritan da oraindik eta, segur aski, etortzeko dauden ikerketek corpora zabaltzeko datu berriak ekarriko dizkigute. Hori horrela, justizia-auzibideetako euskarazko pasarteei testu-genero bateratu gisa etorkizunean ikerketa berekia eskaintzeak emaitza interesgarriak ekar ditzakeelakoan nago.

Erreferentziak

- Bartolomé, C. (1985): «Cuarteles y alcabalas en Navarra (1513-1700)», *Príncipe de Viana*, 173, 561-594.
- , (1993): «Los “remisionados” del pago de cuarteles, (1513-1700)», *Príncipe de Vianaren eranskinak*, 15, 85-91.
- Bilbao, G. et al. (arg.) (2012): *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (v2.0)*, <<http://lazarraga.com>> (Kontsulta: 2018-01-30).
- (arg.) (prestatzen): «Gabriel Echart zuberotarraren eta Miguel Ros erronkariarraren arteko gutuneria (1615-1617)» [UPV/EHUko eskuizkribu argitaragabea].
- Camino, I. (2003a): «Hego-nafarreraren egituraz», *FLV*, 94, 427-468.
- , (2003b): *Hego Nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , (2009): *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Elkar, Donostia.
- , (2013): «Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia», in R. Gómez et al. (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz, 77-140.

- Casanova, J. (2012): *En reivindicación del cirujano de Uxue*, <<http://pitillas-navarra.blogspot.com.es/2012/04/en-reivindicacion-del-cirujano-de-uxue.html>> (Kontsulta: 2018-03-21).
- Crowley, J.P. (1986): «The Study of Old English Dialects», *English Studies*, 2, 97-112.
- Erdozia, J.L. (2005): «Zenbait euskal testu Nafarroan XVII. mendean», *FLV*, 99, 307-334.
- Euskara Institutua (2013): *Euskal Klasikoen Corpusa*, <<http://www.ehu.eus/ehg/kc/>> (Kontsulta: 2018/04/04).
- Garmendia, J. (1977): «Mandato sobre predicación en lengua vasca (en Ujué, Navarra, 1676)», *BAP*, 33, 578-579.
- Gorrotxategi [Gorrochategui], J. eta Lakarra, J.A. (2001): «Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco», in F. Villar eta M^ªP. Fernández (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*, Salamancako Unibertsitatea, Salamanca, 407-438.
- Herring, S.C.; van Reenen, P. eta Schøsler L. (2000): *Textual parameters in older languages*, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Irigoién [Irigoyen], A. (1978): «Canción antigua de amor vizcaína», *FLV*, 30, 453-459.
- Irizar [Yrizar], P. (1992): *Morfología del Verbo Auxiliar Alto Navarro Merdional: Estudio Dialectológico*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Jimeno Jurío, J.M. (1991): «El vascuence en Urraul Alto (1785)», *FLV*, 58, 227-245.
- , (1993): «Salazar/Almiradío. Muga lingüística (1605)», *FLV*, 63, 235-252.
- Krajewska, D. (2017): «Euskararen sintaxi diakronikorantz» [UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea].
- Knörr, H. eta Zuazo, K. (arg.) (1998): *Arabako euskararen lekukoak: ikerketa eta testuak*, Eusko Legebiltzarra, Vitoria-Gasteiz.
- Lakarra, J.A. (1997): «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar bide berri», *ASJU*, 31(2), 447-535.
- , (2011): «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz», in I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, ASJUren gehigarriak 69, UPV/EHU, Bilbo, 155-241.
- , (2015): «Saratsola eta (aitzin) euskar(ar)en geruzak», in B. Fernández eta P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatje, Homenaje*, UPV/EHU, Bilbo, 419-439.
- Lekuona [Lecuona], M. (1933): «El euskera en Navarra a fines del siglo XVI», *RIEV*, 24(3), 365-374.
- Linell, P. (2005): *The written language bias in linguistics*, Routledge, Londres eta New York.
- Madariaga, J. (2014): *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*, Etxeberri bilduma 5, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Maiora, F. (2011): *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases*, egilearen argitalpena.
- , (2017): *Léxico autóctono histórico de Navarra II*, egilearen argitalpena.
- , (2018): *Reino de Navarra. Euskera, lengua ininteligible. Causas del retroceso. Injurias, coplas...*, egilearen argitalpena.
- Manterola, J. (2015): «Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak» [UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea].
- McIntosh, A. et al. (1986): *A Linguistic Atlas of Late Mediaeval English*, Aberdeen University Press, Aberdeen, <<http://www.lal.ed.ac.uk/ihd/elalme/elalme.html>>.
- Mitxelena [Michelena], K. (2011 [1961]): *Fonética Histórica Vasca*, berrarg. in J.A. Lakarra, eta I. Arzalluz (arg.), *Obras Completas VI*, ASJUren gehigarriak LIX, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU, Donostia eta Vitoria-Gasteiz.

- , (2011 [1963]): *Lenguas y protolenguas*, berrarg. in J.A. Lakarra eta I. Arzalluz (arg.), *Obras Completas I*, ASJUren gehigarriak LIV, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU, Donostia eta Vitoria-Gasteiz.
- , (2011 [1964]): *Textos arcaicos vascos*, berrarg. in J.A. Lakarra, eta I. Arzalluz (arg.), *Obras Completas XII*, ASJUren gehigarriak LXVX, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU, Donostia eta Vitoria-Gasteiz.
- , (2011 [1971]): «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos», berrarg. in J.A. Lakarra, eta I. Arzalluz (arg.), *Obras Completas XI*, ASJUren gehigarriak LXIV, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU, Donostia eta Vitoria-Gasteiz, 327-350.
- , (1979): «Miscelánea filológica vasca. IV», *FLV*, 33, 377-406.
- Mitxelena [Michelena], K. eta Sarasola, I. (1987-2005): *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Monteano, P.J. (2017): *El iceberg navarro. Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*, Pamiela, Iruñea.
- Mounole, C. (2007): «Perifrasa zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria», *ASJU*, 41(1), 67-138.
- , (2011): «Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique» [UPV/EHU eta Bordeaux III unibertsitateetako doktorego-tesi argitaragabea].
- , (2015): «Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupersonalen diakroniaz», in B. Fernández eta P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre, homenatge, homenaje*, UPV/EHU, Bilbo, 473-490.
- Mounole, C. eta Gómez-López, R. (2018): «Euskara zahar eta klasikoa», in J. Gorrochategui, I. Igartua eta J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz, 469-541.
- Mounole, C. eta Lakarra, J. (2018): «Euskara arkaikoa», in J. Gorrochategui, I. Igartua eta J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz, 345-468.
- Ratkus, A. (2010): «The adjective inflection in Gothic and early Germanic: structure and development» [Trinity College-ko doktorego-tesi argitaragabea].
- Real Academia Española (2014): *Diccionario de la lengua Española*, <<http://dle.rae.es>> (Kontsulta: 2018/03/22).
- Reguero, U. (2012): «Erdi Aroko euskararen historia kanpotik eta barnetik», *ASJU*, 46(2), 63-160.
- , (2015): «Mendebalaren eta ekialdearen artean: goi-nafarrera zaharren azterketa diakronikorantz», in B. Fernández eta P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*, UPV/EHU, Bilbo, 587 -598.
- , (2017): «Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak» [UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea].
- , (2018): «NOR-NORI-NORK saileko perifrasi-takoa aditz laguntzaileak goinafarreraz: azterketa eta proposamen berria», *ASJU*, 52(1-2), 683-695.
- Salaberri Izko, I. (2018): «Ezeztapenaren hurrenkera euskal egitura perifrastikoetan: hurbilpen diakroniko-tipologikoa», *FLV*, 125, 55-83.
- Salaberri Zaratiegi, P. (1994): *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , (2004): «Sobre la frontera lingüística vasco-romance en la zona de Ujué», in R. Jimeno eta J.K. Lopez-Mugartza (arg.), *Vascuence y Romance: Ebro-Garona, un espacio de comunicación*, Nafarroako Gobernua, Nafar Ateneoa eta Iruñeko Udala, Iruñea, 95-104.

- , (2006): «Uxueko izenak mintzagai/Sobre los nombres de Ujué», *Euskera*, 51, 673-711.
- , (2006): *Izen ttipiak euskaraz*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , (2012): «Euskararen ekialdeko mugak, Hegoaldean», *FLV*, 114, 145-155.
- Salaberri Zaratiegi, P. eta Zubiri, J.J. (2007): *Biraoak: Nafarroan bilduak*, Pamiela, Iruñea.
- Santazilia, E. (2015): «Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak: gehiketak eta zuzenketak F. Maioraren liburuari», *FLV*, 119, 109-146.
- , (2017): «*Orye, lagunac*. Euskara nafarraren aztarnak XVI. mendeko hiru sorginkeria auzibidetan», *RIEV*, 62(2).
- Santazilia, E. eta Zuloaga, E. (2018): «Zer (ez) dakigun Iruñean egiten zen euskarari buruz», in I. Azkona eta R. Jimeno (arg.), *Iruñea historian zehar*, Pamiela, Iruñea, 475-505.
- Sarasola, I. (1983): «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU*, 17, 69-212.
- Trask, R.L. (1997): *The History of Basque*, Routledge, Londres.
- Trebiño, I. (2001): *Administrazio zibileko testu historikoak*, HAEE, Oñati.
- Ulibarri, K. (2013): «Testuak kokatuz dialektologia historikoan: egiteetatik metodologiara», in R. Gómez *et al.* (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz, 511-532.
- Urrizola, R. (2006): «Tres cartas en euskara escritas por un ferrón de Bera», *FLV*, 102, 255-270.

